



DEBAKO UDALA

M8 – EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Adierazpen Instituzionala

25 urte baino gehiago igaro dira, Bejjineko Adierazpenean eta Ekintza Plataforman, erabakiak hartzerako orduan, gizonen eta emakumeen artean parte-hartze politikoa eta boterearen banaketa orekatua lortzeko nazioarteko akordioa adostu zenetik. Nahiz eta aurrerapausoak eman diren, oraindik asko dago egiteko.

Egungo krisi anitzen testuinguru honetan, gizarte, ekonomia, ingurumen eta gobernantza ereduak birplanteatu nahi dira, berdintasun-arrakalak gutxitzeko asmoz, arrakala horiek gizartearen zati handi batentzat handitu egin direlako, emakumeentzat batez ere. Orain da liderrak izateko garaia, erakundeak eta gizartea eraldatzeko harreman-eredu askoz ere inklusiboagoak, kooperatiboagoak eta sortzaileagoak sustatzeko garaia.

Ezin ahaztu arrazakeriaren kontrako justiziaren, soldata-berdintasunaren, indarkeriaren amaiera eta emakumeen aurkako diskriminazioaren, sexu-jazarpenaren ezabatzearen alde borrokan jarraitu behar dugula.

Martxoaren 8aren harira, egitarau oparoa osatu dugu Berdintasuneko batzordean. Aurten menopausia eta zoru pelbikoaren kontzientzia izango dira gai nagusiak. Bina hitzaldi-tailer antolatu ditugu, Deban eta Itziarren, gai hauetan sakontzeko asmoz.

Gainera, *Kilimateria* ikuskizuneko kideek klimaterio aroa umorez jantziko dute euren saioan, herriko Ipuin Kontalariak saio berezia eskainiko dute Ispiluen Gelan, *Elbira* dokumentala ikusgai izango da Kultur Elkartean, eta martxoaren 8ko elkarrataratzearen ondoren *Kalean Kantuz* taldeko kideek kantaldia eskainiko dute plazatik abiatuta.

Debako Udalabaltzako kideok herritarrei dei egiten dizuegu jarduera hauetan parte har dezazuen!

Deban, 2023ko otsailaren 23an.